

Ikuskizuna aurreratuta


Final-laurdenetara sartzeko kanporaketa jokatu da gaur: hiru partida

Koldo Alduntzin / Donostia

BAHEAK azken garbiketa saioa egingo du gaur, gizon-zkoen Munduko Kopan. Izan ere, final-laurdenetara sartzeko hiru norgehiagoka erakargarri jokatu dira, eta galtzaileak etxerako bidaia azkarra hartuko du. Garaileek, berriz, sailkapen fasean multzo bakoitzean aurrea (bost talde) izan zirenekin bat egin, eta asteburuan jokatu dute final-laurdenetako kanporaketa. Hortaz, Hego Afrika, Zeelanda Berria, Frantzia, Gales eta Australia ez dira gaur ariko.

Ingalaterra-Fiji • Oso joko desberdina darabilten bi talderen arteko norgehiagoka izango da ikusgai, Londresen (Twickenham, 14:00). Ingalaterrak sailkapen fasean jokatutako hiru partidetatik bi irabazi zituen: Italiari 67-7 eta Tongari 101-10. Galdutakoa Zeelanda Berriaren aurka izan zen (16-30). Fijik, berriz, 67-18 eta 38-22 irabazi zien Namibia eta Kanadari.

Ingalaterraren hamabostekoan, bost aldaketa egingo ditu Woodward entrenatzaileak, eta berriro Wilkinson joko zabaltzaileak jokatu du Graysonen ordez. Wilkinsonek Zeelanda Berriaren kontrako partidari ohi baino huts



Fijik 38-22 irabazi zion Kanadari, eta garaipen hark eman zion gaur Ingalaterrari aurre egiteko aukera.

gehiago egin zituen, baina konfiantza eman dio Woodward. Fijik ere beste bost aldaketa egingo ditu.

Eskoziak-Samoa • Eskoziak etxean jokatzeko alde izango du Samoaren aurka, Dublinen (Murrayfield, 16:30). Samoak bi aurpegi erakutsi ditu sailkapen fasean: Argentinaren kontrako eta Galesen kontrako. Argentinaren aurka 16-3 ari zen irabazten, eta gero utzi egin

zion ihes egiten garaipenari: 16-32. Eskoziak lan handia egiten du aitzinean, eta jokalariek sarri-sarri laguntzen diote elkarri; etengabe norbait egoten da baloia jaso eta babesteko. Hego Afrikaren kontrako partida ardatz hartuta, Springbooksen zelaira heltzea kosta egin zitzaion, eta falten bidez hurbildu behar izan zuten; halere, lan handia egin zuten baloia eskuratzen.

Irlanda-Argentina • Irlandak 3-23 galdu zuen Australiaren aurka, baina mendean hartu zituen Estatu Batuak eta Errumania. Argentinak, Samoa eta Japonia menderatu zituen, eta Galesen kontra galdu. Irlandak ez du aldatuko joko era. Argentinan, berriz, Quesada aukera guztiez baliatuko da puntuak egiteko jaurtiketetan. Lehia parekatua izango da Frantziako Lens-en (20:30).

Ingalaterra, Eskoziak eta Irlanda dira irabazlegaiak

iritzia

FRANCISCO PUERTAS • Atletico San Sebastian taldeko jokalarientrenatzaile internazionala

Ingalaterra-Fiji izango da erakargarriena. Orain arte ikusitakoa kontuan hartuta, Ingalaterra dakusat faborito. Partida onak egin ditu, eta, batez ere, Zeelanda Berriaren kontrako; horrek erakus diezaguke zer joko egin dezakeen. Egia da zeelandarren esparrura heltzeko lan handia egin behar izan zuela. Halere, talde indartsua du, eta murgilduta ikusten dut Mundialean; oso ondo prestatu du. Fijiri dagokionez, oso ondo aritu da orain arte. Oso joko irekia eta dinamikoa egiten

du, eskura jokatu. Jokalari guztiak dira gai kanpotik jokatzeko, elkar laguntzeko eta baloia ondo pasatzeko; ohiko jokoa, alegia. Bestalde, ez dute oso gustuko atzinean jokatzeko, eta Ingalaterra hor da indartsua baloia bereganatzeko. Italian haien kontra jokatu genuenean ez zuten erakutsi oso aitzin jokozaleak direnik, eta uztartze irekiak eragiten di-



tuzte baloia arin zabaltzeko eta etengabe mugiarazteko alde batetik bestera zuloa aurkitu arte.

Eskoziak-Samoa norgehiagokan, eskoziarrek irabazi behar lukete. Hego Afrikaren kontra izugarriko gogoia erakutsi zuten, eta hobetzeko grina. V Nazioetako irabazi izanak izugarri bizkortu ditu. Samoak, ordea, oso joko agresiboa egiten du, eta defentsa irmoa

darabil; prestakuntza fisiko ikaragarria eta esperientzia handiko jokalariek ditu. Horrek, hala ere, kalte egiten dio noiz edo noiz, zigor kolpe gehiegitxo egiten dutelako.

Irlanda-Argentina ikusten dut parekatuena. Argentinak maila handiko bi erdi ditu. Oro har, oso zorrotz ari da defentsan, eta horrek asko laguntzen dio baloia berreskuratzeko; ohiko ezaugarria du hori. Nolanahi ere, Irlanda ikusten dut irabazlegai, horri irabaztea ez baita ahuntzaren gauerdiko ez tula.

Borja Jimenez Eskozian izan zen, baina ez zuten deialdian sartu ere egin

Miarritze taldean dihardu Borja Jimenez donostiarra, eta Espainiarekin Mundiala jokatzeko ilusioa kendu ondoren, Eskoziaren kontrako azken partidara joan zedin deitu zioten azken orduan. Edinburgon zela, ordea, Feijoo eta Pardo entrenatzaileek ez zuten deialdian sartu ere egin. Beraz, Borjak bi kolpe jaso ditu epe laburrean: hasieran Mundialetik at utzi izana, eta gero, minutu batzuetan jokatzeko aukera izan, eta horretaz ezin gozatu izana.

Guztira 39 jokalarik izan ziren etxera minutu batean ere jokatu gabe

Zortzi taldek amaitu zuten Mundiala joan den asteburuan: Errumania, Namibia, Kanada, Japonia, Uruguai, Tonga, Italia eta Espainia. Talde horietako jokalarik guztiak kontuan hartuta, 39 jokalarik ez dute Mundialean aritzeko gozamenik izan. Kopururik handiena Errumaniak izan du (8), eta txikiena Espainiak (1).

Eskoziako jokalariek haserre sarrera txartelen prezioengatik

Eskoziak-Hego Afrika partidari nabaritu zen gehienbat espero baino eskoziar gutxiago bildu zirela zelaira. Arrazoiak sarrera-txartelen prezio garestia da. Batez beste 8.000 pezeta (350 libera) ordaindu behar da. Eskoziako jokalariek haserre agertu dute, nahi baino zale gutxiagoren animoak jaso baitituzte. Larunbatean 50.000 eserleku hutsik zeuden, eta Murrayfielden 67.000 sartzen dira.

Namibiak 13-79 irabazi zion Alemaniarri

Namibiak ez du berehalakoan etxera joan nahi izan, Mundialetik kanpo geratu ondoren, eta Alemanian jokatu zuen herenegun. Gera herrian aritu ziren, eta namibiarrak 13-79 gailendu ziren, lagunarteko lehiari. Namibiak ez zuten irabazi Mundialean.